

236. zk.

Bigarren aroa

Irailak 1  
2014

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

## Elkarrizketa

Itziar Perez, Bidasoa  
Eskualdeko Ospitalea-  
ren zuzendaria



## Kirolak

Asier Aranburuk ez du  
Bidasoan jarraituko



Iñaki Goikoetxea, Ruta BBVAko begirale



“Bidaia hau kulturak elkartzeko baliagarriagoa da politikariek egin ditzaketena baino”

- 4 **Inketa:** Oporrak bukatu ondoren gogorra da lanera bueltatzea?
- 6 **Estebenea** jattetxean Garagardo Azokaospatuko da irailean.
- 8 **Kirolak.** San Migeleko petankazaleak.
- 10 **Haurren leihoa.** Dunboa LH.
- 11 **Gurasoentzat.** Guaso hasiberrien beldurrak.
- 12 **Gazteen Lanak.** Hirubide BHI
- 13 **Gaztea.** Hiru gazte musikak harrapatuta



 BAINU



Aldatu zure bainuontzia  
dutxa batengatik

Guztia 2 egunetan!

BALIA EZAZU 700 € ARTEKO  
LAGUNTZA OFIZIALA

IRUN

Uranzu, 9  
943 615 184  
687 572 920

DONOSTIA

Zarautz  
hirib., 86  
943 561 652  
bainu.irun@gmail.com



## Alias Olandrea



Xabier Kerexeta

Maiz historia zeinen injustua izaten den entzun edo irakurri ohi dugu. Gizon handien egitandiak aintzat hartu eta gainerakoak ahanzi egiten omen dira; alegia, ditugu. Jakina, hori dioenak ez ditu ahanzen eta bai aldarrikatzen: euskaldunak direla, emakumeak direla, langileak direla, ahotsik gabekoen alde hitz eta idatzi egingo duenik ez da faltako, eta ez da historikoki falta izan. Baina hemen ere, nahi gabe ere, badira mailak. Emakume euskaldunek ez dutela tokirik izan historian? Nork ez du, bada, Zugarramurdiko sorginen berri? Egia da larrutik pagatu zutela historiara pasatzea, baina haiek baino euskal emakume ospetsuagorik, nekez. Zerbaitengatik esaten da gure noizbaiteko existentziaren berri inork ere ez duenean hiltzen garelako erabat.

Ikaragarria bazen ere, kontua da martirioak abantaila baduela. Ondorengo mendeetan izenak herritarren ahotan eta gogoetan edukitzea zertan den abantaila?. Ez dakit. Zugarramurdiko gizon-emazte errukigarriek ez, baina beste askok propio bilatu eta bilatzen dute. Zer dela eta jakingo genukeen Graziana Barrenetxearen berri, Logroñon Inkisizioaren eskutik pasa eta hil eta erre ez balute? Inesa de Gaxen hurbilago dugu, Hondarribian, haren patua hainen latza izan gabe ere bere burua salatzeari uko egin ziolako erresistentzia zibil *avant la lettre* moduko baten ikur bihurtuta.

Nork gogoratzen du, ordea, Etxalarko Maria de Endara, alias Olandrea? Alias? Delinkuente bat al zen? Susmagarri bai behinik behin, eta giltzapean eduki zuten, imajinatzerik ez dugun egoera penagarrian, sorgina zelakoan. Bada, ez, ez omen zen sorgina, eta azkenean askatu egin zuten, eta beraz ez da historiara pasatu. Hain zuzen, martirioaren palmorria bereganatu ez zuelako erabat ezezaguna zaigu. Haren alias kuriosoarengatik ez balitz, nihaurik ere ez nuen gogora ekarriko: Endarako olaren jabea zelako deitzen zuten Olandrea, norbaitek euskaldunen historia erdaraz idazten zuelako "alias" bihurtuta ezaugarri ekonomiko-juridikoa.

Olagizon eta olajaun gutxi salatuko zuten sorgintzat, ordea.

## Irun atzo Irun gaur

Juan Thalamas Labandibar kalea



Juan Thalamas



IUA: 41179



2



IUA: 41183

## Irunero

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

**Euskara zuzentzailea:**  
Xabier Kerexeta

**Publizitatea:**

Sonia Garcia Olazabal,  
Amaia Terrazas

[preto@telefonica.net](mailto:preto@telefonica.net)

Ion Otxoa

[ion@943sansebastian.com](mailto:ion@943sansebastian.com)

**Argitaratzailea:**

Baseclick S.L.

**ISSN:** 1134-0606

**Lege gordailua:**

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -  
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Juan Thalamas Behobian jaio zen, 1906an, eta Kanbon zendu, 1981ean. Frantziako Tolosan eta Parisen ikasketak burutu ondoren, 1931n apaiz egin zen.

Etnografoa, idazlea eta unibertsitateko irakaslea izan zen. Parisen *Anayak* aldizkaria (1938-39) zuzendu zuen, 1945ean *Gernika* aldizkaria sortu zuen Donibane Lohizunen, eta 1956tik 62ra maiz kolaboratu zuen *El Bidasoan*. 1966taz geroztik sarri kolaboratu zeun Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Buletinean.

Kultura herrikoia inguruko gaiak biltzen egindako lana eta kristau-humanista izateko saiakerak azpimarratu behar dira. Gizon

nekaezina, musika maite zuen, eta, batez ere gure kultura.

1982an Behobiko errepideari (Lehenengo N-1) jarri zion Udalak haren izena. Kale horretako industriarik nabarmenetako bat Espumosos Zugasti izan zen, non edariak ekoizti eta ontziratzen egiten ziren.

Argazkiak: 1.- Lantegiko kamioietako bat 50etako hamarkadan. 2.- Produkturik ezagunetarikoa: sifoia. Aldamenean, hain berezko zuen botila babesteko sarea. 3.- 70eko hamarkadako enpresaren irudi bat.

J. Thalamasi buruzko informazioa:  
*Irungo kaleen izenak*. José Monje.



# “Gero eta jende helduagoa dago eta horrek eragina dauka osasun arloan”

## Itziar Perez, Bidasoa Eskualdeko Ospitalearen zuzendaria



Lehenago argazkian Bidasoa Eskualdeko Ospitalea ikus dezakegu. Bigarren argazkian, Itziar Perez bere lanpostuan.

Hogeita bost urte bete ditu 2014an Bidasoko Ospitaleak. Eskualdeko ospitaleei dagokienez, EAEko bigarrena izan zen. Azken bost urteotan izan da Itziar Perez zuzendaritza lanetan: hiru pasa ditu medikuntzako zuzendaritzan, eta ia beste bi, gerentzian. Lehenago, medikuntza irakasle ere izana da.

### - Nolako da bidasoarren osasuna?

Nik esango nuke ona dela, beste eskualdeekin konparatua, ez dago ezberdintasun handirik. Gero eta jende helduagoa dago eta horrek eragina dauka osasun arloan. Kroniko asko daude, bihotzeko edo biriketako gaixotasunak dituztenak.

### - Zertan aldatu da osasuna hogeita bost urte honetan?

Teknologia aldetik aldateka haundiak egon dira, bai diagnostikoa egiteko bai gaixotasunak tratatzeko. Minbizia bezalako gaixotasunak, adibidez, lehen, sen-

tentzia ziren. Orain asko sendatzen dira. Bizitza-itxaropena askoz luzeagoa da, eta uste dut bizi-kalitate handiarekin iristen dela jendea adin horietara.

### - Ospitalean zein izan dira aldaketa nagusiak?

Espezialista gehiago dago, eta teknika aldetik aurrerapen handiak egon dira. Gaixotasun berezien edo trebezia handia behar dutenen kasuetan, Donostiara bideratzen dira gaixoak. Baina, gainerakoan, baliabide onak ditugu, bai diagnosirako, baita tratamendurako ere.

### - Bidasoko ospitalea Irundik eta Hondarribitik oso gertu dago. Gehiegi erabiltzeko joera dugu?

Eskualdeko ospitaleen artean, urgentzia gehien jasotzen duena da Bidasokoa. Horretan, kokapenak eragin handia du. Bide batez, azpimarratu nahi nuke Irungo anbulatorioan hogeita lau orduko arretaz zerbitzua dagoela. Nik uste dut ospitalea gauza larriagoetarako utzi beharko litzatekeela.

### - Zer da erabiltzaileek gehien baloratzen dutena?

Jende gazteak zerbitzu azkarra bilatzen du, itxaron behar ez izatea. Batzuek uste dute ospitalean teknologia aurreratuagoa daukagula anbulatorioan baino. Hala ere, kasu gehienetan ez da horrela, eta arazo arruntak han ere trata daitezke. Bestalde, ospitalean ingresatuta egon den jendea bertara itzultzen da zuzenean.

### - Krisiak eraginik izan al du Ospitalean?

Gaixoak dira gure lehenatasuna, eta hauek

jasotzen duten zerbitzuan krisiak ez du eraginik izan. Ez dugu zerbitzurik itxi behar izan, eta langile kopuru bera mantentzen dugu, gutxi gora-behera. Bidasoan izan den aldaketarik handiena ez da krisiaren ondorioz gertatu. 2011tik aurrera, ospitaleak eta Irungo eta Hondarribiko osasun zentroek erakunde bakarra osatzen dugu. Gure helburua da familia-medikuak eta erizainak ospitalekoekin koordinatzea. Gaixoa izan behar da gure lehenatasuna.

### - Zuzendari bezala zein proiektu daukazu?

Azken aldian zaharren egoitzako asistentzia antolatzen ari gara. Aldatu egin dugu, eta bide hori lantzen ari gara. Ospitalearekin harreman handiagoa izan dezan nahi dugu. Bestalde, Irungo eta Hondarribiko Udalekin prebentzio plan bat egiten ari gara. Ospitalearen eraikuntzari dagokionez, larrialdien atala berritzeko lanak egingo ditugu irailetik aurrera.

## BAKAILAOA DASTA EZAZU





## INKESTA

## Gogorra, iraileko buelta?



## Toñi Mendoza

Toñik Ama Xantalen egoitzan animatzaile sozio kultural lana egiten du. Oporrak uztailean izan ditu eta abuztuan bueltatzerakoan oso gogorra egin zaio, batez ere eguraldi txarra egin duelako eta seme-alabek oporrak izan dutelako. Bere lanpostura bueltatzea psikologikoki gogorra egin zaio, bigarren egunean oporrak ahaztuta izan arren.

## Idurre Lekuona

Idurrek Irungo AEKan lan egiten du. Aurten ez du izan oporrik, atzerrian bizi izan da urte batzuetan eta bueltatzerakoan lan egin nahi zuen. Irailean ikasturte berria hasten denez, ez du uste oporrak izango dituenik. Bestalde, normalean jarrera onarekin bueltatu ohi da lanera; dena den, berdin-berdin egin behar da lana eta hobe alai eta gustura egitea.



## Dani Calleja

Dani medikua da eta Tolosan lan egiten du. Udan neguan baino egun gutxiagotan egin du lan, eta denbora atera du zenbait jarduera egiteko: kirolak, eskulanak, eta euskaltegira joan da. Iraileko buelta eta errutina gogorra egingo zaiola uste du. Izan ere, konten dago, oraindik oporrak hartu ahal ditu eta.



## Begoña Larrarte

Begoñak "Calzados Marisan" lan egiten du. Aurten uste zuen oporrak ez zituela izango, baina tupustean bidaitu behar izan du, eta aprobetxatu du aste-erdiko oporrak hartzeko. Bere kasuan ez dio denbora eman deskonektatzeko, eta uste du lanpostu bat daukagunok oso zorionekoak garela eta ez dugula arranguratu behar.



## Estibaliz Garcia

Estibaliz andereñoa da eta Legorretan egiten du lan. Udan bi hilabeteko oporrak ditu eta lanpostura bueltatzea ez zaio gogorra egingo. Urduri dago, baina bere klaseko umeak ikusteko gogo bizia dauka. Beste aldetik, ez du ulertzen langileek beraien lanpostura bueltatzerakoan depresioa izatea.



**BALIA EZAZU 700 € ARTEKO LAGUNTZA OFIZIALA**

**Aldatu zure bainera dutxa batengatik**

*Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa*

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.

**¡Guztia 2 egunetan!**

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe**

Pedregin de Uránzu, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun

943 615 184 - 687 572 920

bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia

943 561 652





# Iñaki Goikoetxea Irungo gazteak Ruta BBVAn parte hartu du

Ruta BBVA, lehen Ruta Quetzal izenez ezagutzen zena, 1979an antolatu zen lehenengo aldiz, Miguel de la Quadra-Salcedo abenturazaleak sustatuta, honako helburu honekin: Iberoamerikako gazteen arteko elkartruke kulturala bultzatzea.

**Eskuinean, Ruta BBVaren 2014ko edizioan begirale lanetan aritu direnak. Beheko argazkian, 29. edizioan parte hartu duten gazteak, 200 baino gehiago.**



Aurten 29. edizioa egin da, eta azken urteetan eman den bidaiaren estruktura mantendu da. 21 herrialdeetako 16-17 urteko 200 gazte baino gehiago elkartu dira bost asteko bidaia egitera ekain-uztailetan. Lehenengo partean Perun ibili dira, eta bigarrenean, Espainian. Iñaki Goikoetxea irundarrak bigarren honetan parte hartu du begirale gisa. Osoan parte hartzeko aukera izan arren, erdia egin izan behar du, hemen lana zeukan eta.

#### - Zein izan da gazteen lana?

Gazteek Ruta BBVAn parte hartzeko lan batzuk aurkeztu behar dituzte. Orain arte, gai historikoen inguruan ziren, eta orain balioak ere lantzen hasi dira. Horrela, aurten beraientzat garrantzitsua zen Espainiako edo Peruko XX. mendeko pertsonaia baten inguruan hausnartu behar zuten, eta Perun gaizki dagoen egoera soziala bat hobetzeko proiektua aurkeztu. Lan asko aurkezten dira eta zaila da sartzea, eta horrek inplikatzeko du gazteen maila eta inplikazioa oso altua dela. Bidaian daudenean, bisita eta hitzaldi kultural asko egiten dira, baita kirola eta mendi ibilbideak ere.

#### - Zer esan nahi du "Amazonas ibaiaren iturburuen bila" delakoak?

Urte bakoitzean helburu bat ematen zaio Rutari, eta haren inguruko izenburu bat. Aurten, Peruko zatian, herrialde horretan

jaiotzen den Amazonas ibaiaren iturburura igo dira ruteroak, Nevado Quehuishan 5.170 metrora kokatzen baita: erronka handia!

Bidaiaren bigarren partean Madrilen, Euskal Herrian, Valladoliden eta Toledon egon gara, eta Perurekin ere harremana zuten lekuak bisitatu genituen; adibidez, Nafarroako Irurita eta Arizkun herrietan izan ginen, bertako goienetxetarek garrantzia handia izan zutelako Peru Espainiako kolonia zenean.

#### - Zer ikasi duzu, gure gizartean zer hobetu daiteke?

Bidaian agintari askok hartu gaituzte, beste artean Felipe VI.a errege berriak, eta guztiak mezu bat esaten ziguten, eta nik horrekin bat egiten dut: "Horrelako bidaia eta esperientzia batek kulturak elkartzeko gehiago egiten du, politikariek egin ditzaketan esfortzu asko baino". Bestalde, imajinatu behar dugu parte hartu duten gazte askorentzat hau izan dela lehenengo aukera euren herrialdeetatik ateratzeko, eta betiko gordeko duten uneak bizi dituzte, zerbait ahaztezina. Nik, begirale bezala, ikasi dut, nahiz eta kultura ezberdinetakoak izan, asko dugula komunean, eta harreman pertsonaletan berdintsuak garela.

#### - Pasadizoren bat kontatu

Ruta oso antolatua dago, baina badira azken orduko aldaketak. Hau ezagutzen



hasi ginen martxoan, begiraleen hautaketan, Madrilgo mendietan probak egiten ibili ginenean izugarritzko elurtearekin. Ez da erraza 200 gazte mugitzea eta hauen inguruan dagoen guztia (laguntzaileak, medikuak, kateringak, kazetariak, TVE-rako dokumental bat grabatzen dutenak...). Batzuetan bezperako gaura arte ez genien zein zen hurrengo egunaren plan zehatza, kezkak sortzen ziren... Baina azkenean dena ondo ateratzen zen.

#### - Gomendatuko zenuke Ruta BBVA? Zergatik?

Dudarik gabe, Ruta BBVAn parte hartzea gomendatuko nuke. Gazte bezala, izugarritzko esperientzia da eta beste herrialdeetan bizi diren lagun oso interesgarriak egiteko aukera paregabea da. Begirale bezala (24-28 urte izan behar dira) zaila eta gogorra da sartzen lortzea; baina behin bertan zaudela, beste inon ezagutuko ez duzun kanpamendu mota batean murgiltzeko aukera duzu. Horregatik, Irunen eta Euskal Herrian ibiltzen diren begirale guztiak gonbidatzen ditut informazioa bilatu eta probatzera.



# Estebenea tabernak Garagardo Azoka ospatuko du irailaren 18tik 21era



Iaz ekitaldi berritzaile baten alde egin zuen Estebenea Tabernak. Garagardo Azokak izan zuen harrera ona ikusita, aurten egitarau osatuagoa eskainiko du Igor Eizagirre bertako nagusiak. Hala, 17 garagardo-iturri izango dira dastatzeko; belgiarrak, alemaniarrak, amerikarrak... eta bidasoarrak ere bai!

2013an zortzi garagardo-iturri jarri zituen Igor Eizagirrek Estebenean. Garagardoaren I. Azoka apala baina arrakastatsua izan zen. Aurten indarrez dator bigarren edizioa: guztira 17 izango dira dastagai, eta azokak jarduera sorta ere eskainiko du. Garagardo mota zabala aukeratu du Igorrek. "Belgiarrak izango ditugu; arinetatik hasita Golden Draak bateraino. Alemaniako garizkoak ere dastatu ahal izango dira, amerikar bat (Brooklyn) eta Eskoziako modomodakoa (Brew Dog). Nabarmentzekoa da Bidasoko enpresa batek parte hartuko duela, Bidasoa Basque Brewery, berriki artisau metodoari jarraiki garagardoa produzitzen hasi dena". Alemanian oso zabaldua dauden *beer garden* delakoen giroa sortzea du Igorrek helburu. "Fabrika bakoitzak bere eremua dauka, non bere produktuen dastaketa eskaintzen duen". Garagardo anitz edan ahal izateko 250 ml-ko tamaina izango da zerbitzatuko den txikiena. Litro erdikoa eta litrokoa ere eskuratu ahal izango dira.

## Gero eta garagardoze gehiago

Gure eskualdean garagardoak gero eta zale gehiago dituela uste du Igor Eizagirrek, "eta hemendik aurrera, bertako enpresa bat dugunez, jendeak deskubrituko du garagardo oso zaporetsuak badaudela". "Kontsumitu ohi direnak ekoizteko ez da artisau metodoa baliatzen; hortaz, garrantzak dira, baina zapore motelekoak. Azokan hainbat ñabar-dura topatuko ditugu: tropikalak, meloko-toizkoak..." Garagardoa edateaz gain, edari honen inguruko hainbat azalpen emango da azokan bertan eta, gainera, nork bere etxean nola ekoiz dezakeen ere irakatsiko da. Jardunaldiak hobeto girotzeko, Estebenean irailaren 18tik 21era afaltzeko tenorean garagardotegiko janari tipikoa baizik ez da sukaldatuko: saltxitxa alemanak, txerri-ukondoa eta hanburgesak, besteak beste.

Jarduera batzuek toki mugatuak dituzte: 943 62 19 62



**BIDASSOA  
BASQUE  
BREWERY**



17 garagardo  
dastatzeko

Triple Karmeliet  
ST San Bernardo Prio  
Weihestephaner Vitu  
Golden Draak  
Blanche de Brabant  
Hopus  
Brooklyn Lager  
Napar Bier  
Bidasoa Boise  
Mugalari  
Palax  
Palax Pardon  
Brew Dog (5 iturri)



## EGITARAUA

Osteguna, IRAILAK 18

19:00etan, AZOKAREN HASIERA  
20:30ean, BREW DOG EXPERIENCE. Garagardoaren aurkezpena eta bere 5 garagardoren dastaketa.

Ostirala, IRAILAK 19

20:30ean, BIDASOKO garagardo berriaren aurkezpena. Ekoizleak bertan izango dira.

Larunbata, IRAILAK 20

20:00etan, KONTZERTUA: Pick a beer.  
20:30ean, Afaria, Erik Coene Belgikako garagardo inportatzailearen azalpenekin.

Larunbata, IRAILAK 20

16:00etan, IKASTAROA, artisau-garagardoa egiten ikasteko.





IRAILA

2014



# HONDARRIBIKO JAIAK

## Caser Betharramen



Trini Echeverria Caser Betharrameko 2014ko kantinera Mikel semearekin. Behean, egoitzan egin den kantinera orratz-apaingarrien tailerra.

Caser Betharram zaharren egoitzan, urtero legez, Hondarribiko jaiak ospatuko ditugu, eta hartara egitarau berezia prestatu dugu.

### Astelehena, IRAILAK 1

10:00etan. – Txangoa Hondarribira autobusez.

### Asteartea, IRAILAK 2

17:30ean – Dantza ikuskizuna Meaka Dantza Taldearen eskutik.

### Asteazkena, IRAILAK 3

11:00etan - Haurrentzako pintura lehiaketa. Nork bere materiala eraman behar du.

17:30ean – Jaietako bingo berezia FAMILIAKO KIDE GUZTIENTZAT. Sariak banatuko dira.

### Osteguna, IRAILAK 4

17:30ean. – Jaia Hondarribiko Erraldoi eta Buruhandiek.

### Ostirala, IRAILAK 5

17:30ean – Trikitixa emanaldia Auntxa ikastegiko ikasleen eskutik.

### Astelehena, IRAILAK 8

Goizean, 2014ko Hondarribiko Alardearen zuzeneko emankizuna egoitzako areto ezberdinetan. Arratsaldean kafetegiko pantailan. Jaietako bazkari berezia.

### Asteazkena, IRAILAK 10

Herri bazkaria Ardora jatetxean Hondarribian jaiotakoentzat edota bertan erroldatutakoentzat.



Nahi duen guztiak parte har dezake ekintzetan.  
ANIMA ZAITEZTE !!

**Caser**  
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU  
Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak





# Petankan denbora-pasa

Arratsaldero aritzen dira jolasean San Migel auzoko beteranoak



Argazkietan San Migel auzoan petankan aritzen diren jokalaririk ikus ditzakegu.

Ohikoa izaten da herrietan jubilatutako taldeak petankan jolasten ikustea. Bidasoaren beste aldean tradizio handia du bola-jokoak, baina Irunen ere badira petankan arituak eta adituak. San Migel auzoko futbol zelaiaren aspaldi hasi ziren elkartzen. Gaur egun, bertan dagoen parkean pista dotorea daukate.

Arratsaldeko laurak aldean elkartzen dira ia egunero petanka pistan. Bat edo beste, beti egoten da norekin jokatu. Ohiko uniformea nahaste bitxia izaten da: kirol oinetakoak, galtza luzeak, alkandora laukidunak eta gazte itxura ematen duen bisera. Denak gizonezkoak dira, adin ezberdinetakoak. Binaka edo hirunaka jokatzen dute. Baina bi multzo nabaritzen dira: langileak eta jubilatutakoak. Bigarreneko kide da Sebastián López. Hirurogeita hemezortzi urte ditu, eta taldeko beteranoetako bat da.

“Arratsaldea pasatzeko jolasten gara, beste helbururik gabe”, adierazi du.

Zaila da jakitea zenbat denbora daramaten petankaren inguruan elkartzen. Sebastián López duela hamar urte inguru hasi zen San Migeleko futbol zelaira jaisten. Baina azaldu du bere aurretik zerrenda luzea izan zela: “Pinarren urteak zeramatzen petankan jolasten. Ni hasi nintzenean, San Migeleko futbol zelaiaren aritzen ginenean. Ondoren, parkea eraiki zutenean, pista berria egin ziguten”. Eskakizun gehiago dituzte, hala ere, Irungo Udalarentzat. Neguko egun euritsuetarako, aterpe bat nahi lukete pistaren gainean. “Baina benetan premia behar duguna komuna da. Pixa egiteko sasiatar joan behar izaten dugu”, azaldu du Lópezek.

#### Proventzatik San Migelera

XX. mendearen hasieran sortu zen petanka Proventzan, Frantzia hegoaldean. Bertatik mundu osora hedatu da denboraren poderioz. Frantziatik kanpo, Kataluniako kostaldean adibidez, petankan aritzeko ohitura handia dagoela baieztatu du Lópezek. Denbora pasatzeko modu aproposa dela uste du irundarrak: “Edadetuen hobbya da

batez ere”.

Aurreiritziez harago, moduan praktikatzen duenik ere bada Irunen. Club Petanca Txingudi Elkarteak federatzeko eta lehiatzeko aukera ematen du. San Migeleko jokalariek, berriz, ez dute halako helbururik. “Lehiaketak egin izan dira, baina nik ez dut inoiz parte hartu. Luzeegiak dira”, dio.

Petankaren oinarria ulertzen erraza da. Zurezko bola txiki bat botatzen du lehenengo jokalaririk batek. Ondoren, metalezko bola handiak banaka jaurti, eta txikiarengandik ahalik hurbilen utzi behar dituzte parte-hartzaileek. Aurrerikaren urrutzea ere izan daiteke jaurtiketaren helburua. Teoria sinplea den arren, praktika eskatzen duela adierazi du Lópezek: “Ez dago taktika magikorik. Jardunaz ikasten da”. Denboraren poderioz, jokalaririk trebeak eman ditu San Migel auzoko pistak. Batzuek bolak jaurtitzeko segitzen dute. Baina badago jokoaren eserita jarraitzen duenik ere: adinak ez du barkatzen. San Migeleko beteranoen pistaren ondoko bankuan daukate eserlekua. Makulua alde batean utzita, lagunak animatzea dute ohitura.

sartu [www.txingudionline.com](http://www.txingudionline.com)-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ereala munduan, Kiriak, Desdi nueve metros, testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kirok, Bidisoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Erreala munduan, Kiriak, Desdi nueve metros



**IRENDAIA IRUN HONDARRIBIA**



berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zubioga, Kiriak, Bidisoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Ereala munduan, Kiriak, Desdi nueve metros, testaparrak, La Baratus, Ocurrid, Falso de cine, Historias del Bidasoa



# “Ez dut niganako interesik ikusi”

Asier Aranburu, Bidasoa eskubaloi taldeko jokalaria ohia



Nerbio biziko jokalaria da Asier Aranburu. Nortasun handiko mutila. Maiz altzarazi ditu zale bidasoarrak bere ezker hegaletik. Baina ez du berriro egingo. Azken urteotako kapitaina galdu du Bidasoa-Irunek. Klubak berandu eman dio taldean jarraitzeko aukera. Eta zaratarik atera gabe, atzeko atetik utzi du Aranburuk Artaleku kiroldegia. Bertan eskaini du elkarrizketa, hala ere. Beti izango baita bere etxea. Minduta dago irundarra, baina etorkizunari begira ari da dagoeneko. Burua tente azaldu du azken asteotan gertatutakoa.

**- Zergatik ez duzu Bidasoan jarraituko?**  
Bi bilera izan nituen Fernando Bolea entrenatzailearekin eta Salva Pombar kirol zuzendariarekin. Nik segitzeko asmoa nuen, eta haiek esan zidaten taldean tokia edukiko nuela. Ez nuen kontraturik sinatu, baina lasai joan nintzen etxera. Taldea entrenatzen hasi zen eguna iritsi zen, eta nik ez nuen deirik jaso. Presidentearekin harremanetan jarri nintzen. Berak jakinarazi zidan ez nuela taldean jarraituko. Uztailaren 30ean talde barik gelditu nintzen, lanean edo ikasten hasteko aukerarik gabe.

**- Azken momentuan taldean segitzeko eskaintza egin zizun klubak. Baina ez zenuen onartu.**  
Ez zuten ondo jokatu, eta nik hori adierazi nien. Ezezkoa eman ondoren, eskaintza bat egin zidaten. Ondo pentsatu eta gero, Bidasoan ez jarraitzea erabaki nuen. Kirol zuzendaritzaren aldetik ez nuen niganako

“Lehen egunetan gaizki pasa nuen”

Asier Aranburu, Artaleku Kiroldegiaren kanpoaldean.

interesik ikusi. Ez dut uste lau egunetan haien plangintza asko aldatu zenik.

**- Denbora pasa da, berria barneratu duzu. Zer da orain sentitzen duzuna?**

Orain, lasaitasuna. Hasierako zalaparta guztia pasa eta gero, jendearen babesas jaso ondoren, libre sentitzen dut nire burua. Lehen egunetan gaizki pasa nuen, baina orain etorkizunari begira nago dagoeneko. Lan mundura bideratzen hasi nahi nuke, eskubaloia erabat utzi gabe.

**- Oso gazte zinela egin zenuen debuta Bidasoan, eta urte onak pasa zenituen mendearen hasieran.**

Eskubaloiaren krisia hasi aurreko azken txanpa harrapatu nuen. Hemezortzi urterekin egin nuen debuta Asobal Ligan, Julian Ruiz entrenatzailearekin. Gaztea nintzen, baina goi mailan aritu ginen. Europa mailan jokatu genuen, eta ligan seigarren eta zazpigarren postuetan ibili ginen. Askok ikasi nuen.

**- Geroago, Bidasoaren jaitsiera bizi izan zenuen, baita Ohorezko B Mailako lehen urte haiek ere.**

Esperientzia hura gogorra izan zen. Ohorezko B Mailara jaitsia kolpe gogorra izan zen. Hala ere, hurrengo urteak okerragoak izan ziren. Arazo ekonomikoak larritu egin ziren, eta desagertzeko zorian egon zen Bidasoa. Momentu zail hartan, jokalariek za-

leekin bat egin eta kluba bizirik mantentzea lortu genuen. Uste dut ahalegin horri esker hartu duela Bidasoak gorako bidea.

“Ni Artalekura etorriko naiz larunbatetan”

**- Orain harmailatik ikusi beharko duzu Bidasoan. Artalekuko zale bat gehiago izango zara?**

Irunen baldin banago behintzat, bai. Lagun handiak ditut Bidasoan, eta nire betiko taldea da. Jendea pasako da, desagertuko da,, baina kluba da historian zehar jarraituko duena. Eta ni Artalekura etorriko naiz larunbatero.

**- Babesa eta animo handiak jaso dituzu egunotan. Zerbait ondo egin duzun seinale.**

Klubaren aldeko lana egin dudanean, hala nahi nuelako izan da. Ni hona etorri naizen bakoitzean jendea gustura egon zedin saiatu izan naiz. Badirudi horrek bere fruitua eman duela, eta egia da mezu eta animo asko jaso ditudala. Bai eskubaloiaren munduko jendearenak, baita kanpoak ere. Benetan eskertzekoa da denek laguntza.



AGENDA 21

## KONT-SUMO IRAUNKO-

Aurtengo gaia: kontsumoa, uraren inguruan hartu ditugun irizpideak: HELBURUAK:

- URA BIZITZARAKO DUEN GARRANTZIA BALIOSTEA.
- GIZAKIOK URAZ EGITEN DITUGUN ERABILERA BEREIZTEA
- URA EZ XAHUTZEAREN ETA EZ KUTSATZEAREN GARRANTZIA ULERTzea.
- URAREN INGURUKO OHITURA BIDEZKOAK ETA ARDURAK HARTZEKO PREST EGOTEA.

Landu ditugun ekintzak ingurumen, hizkuntza, matematika eta plastika arloetan izan dira.



Dunboa LH. 3. eta 4. maila

### SENTSIBILIZAZIORAKO:

Irakurgai batzuk irakurri ditugu: "Ura guztiontzat", "Artikoa".

Bi ipuin landu ditugu: "Printzesa eta bere kutxa miresgarria" eta "Ur ttantta baten bidaia".

National Geographic-eko aldizkari monografikoa aztertu dugu: *Ura* izenburukoa.

Uraren gaiak berehala berpiztu zuen jakinmina ikasleone artean, oso motibatuak egon gara hasieratik.

### 2. INGURUNE:

- URA LURREAN: OZEANOETAN, IBAIETAN, AKUIFEROTAN...
- UR GEZA ETA UR GAZIA.
- URAREN EGOERAK ETA URAEN ZIKLOA.
- UREZ EGINDA GAUDE.
- URAREN ERABILPENA ETA KUTSADURA.

Hau guztia lantzeko testu ezberdinak erabili ditugu: gelakoak, liburutegikoak... Muralak, eskemak, liburutegiko bideoak...

### 3. MATEMATIKA ARLOAN :

- Uraren inguruko problema batzuk egin ditugu: barra grafikoak, litro neurria, uraren erabileraren konparaketak.
- Ur litroak neurtzea, galdetegiaren puntuetak.
- Galdetegiaren (Ura gure etxean) emaitzen arabera: erdiak oso ohitura onak ditu ur kontsumoan; gainontzekoak, orokorrean, kontsumo aldaketa batzuk egin ditzakete, adibidez, etxeko bonbak karga erdikoa izatea.
- Faktura ulertzea edota durtatzeko 10 minutu baino gehiago ez erabiltzea, etab.

### 4. PLASTIKA ARLOAN:

- Uraren kristalizazioari buruzko mandalak margotu ditugu, eta mural bat, non bi ideia azaltzen ditugun, argazki eta argazki-oinen bidez. Alde batetik, Dunboako BIDEGORRIAN, BI ALDEETAKO itsasadarraren aurkitutako zaborra. Bestetik, natura gune interesgarri hori errespetatzeko eta zaintzeko beharra bultzatzea, gu erantzule gara eta.

### 7. ZIENTZIA MUSEORA

Martxoan joan ginen eta uraren egoerak landu genituen museoko teknikariekin. Oso interesgarria izan zen, ikasleoi asko gustatu zitzaigun. AZKEN XEDEA, ekintza guztien bidez, ura bizia dela eta harekiko ardura eta kontsumo orekatuagoa bultzatu nahi izan dugu.

### 5. IRTEERAK:

#### DUNBOAKO BIDEGORRIRA

Argazki kamera hartuta, apirilaren bukaeran, abiatu ginen Dunboako itsasadarrera uraren egoera ikustera: zirikinkeria ea bazegoen, padurako fauna (ahatekumeak, sugandilak) ...

Dibertigarria izateaz gain, uraren egoeraz gu ere erantzule gara konturatzea izan zen helburua.

Jasotako informazio guztiarekin mural bat egin genuen. Murala egiteko azalpen-testuak eta argazki-oinak landu genituen.

### 6. IBARLAKO MINTEGIRA:

Oinez joan ginen (urrian) eta paisaia izotz txuri-txuriz estalita zegoela aurkitu genuen. Aukera ona izan zen uraren egoeraz elkarrizketak sortzeko Mintegian bertan, landareak hazteko uraren garrantziaz hitz egin genuen. Hezetasuna mantentzeko eta ureztatzeko sistemak azaldu zizkiguten. Eta, bukatzeko, loretxo bana eraman genuen exera, berriro neurritz ureztatzeko eta arduraz tratatzeko gomendioekin.



## Beldurra emozioa. Lehen atala

## Guraso hasiberrien beldurrak: Komunitatearen elkartasuna, positiboa ote?

Beldurraren emozioan sakondu nahirik, nondik hasi galdetu diot neure buruari, eta maiz ikusten dudan adibide edo egoera bati buruz gogoeta egiten hasi nahi nuke oraingoan. Seguruenik, maila batean edo bestean guraso guztiok bizi izan dugun egoera da, batez ere haur jaioberria genuenean.

Lehen aldiz guraso izan behar dugunean gehienetan ilusioz beteriko garai bat pasatzen dugu: zain gaude, gogoz gure haurra ikusteko eta bizitza berri bat hasteko. Gogoak, ilusioak, pozak eta maitasunak hor daude pil-pilean, baina emozio positibo horiekin batera ere BELDURRAK eta segurtasun faltak azaltzen dira: osasuntsu jaioko da? erditzean indartsu izango naiz?

Emozio eta sentimendu positiboekin batera beldurrak sentitzea normala eta osasuntsua izan daiteke, bideratzen ikasten badugu.

Nola ez gara, bada, beldurtuta sentituko inork irakatsi ez digun rol hau burutzeko?

**BELDURRA EMOZIOA DA**, arriskua, min fisiko edo psikologikoa jasan daitekeela ohartzean sentitzen dugun emozioa. Arriskutik babesten gaitu, ingurunera moldatzen lagunduz.

Guraso gisa sortzen zaizkigun beldurrak anitzak dira eta gure haurren heziketan adi egoten laguntzen gaituzte; berez beharrezkoak dira, baina gureak direla ahaztu gabe. Guk ere geure beldurren kontzientzia hartzea garrantzitsua da oso, haiek ulertu, onartu eta erregulatzen ikasi, geure haurrei transmititu gabe. Haurren hezikuntzan ingurunera adi egon behar dugu, behatu, egon, entzun, ulertu... baina ez bagara horietaz jabetzen edo ez badugu gogoeta egiten, geure beldur irrazionalak intseguritatea edo arrazoirik gabeko beldurrak transmititu ahal dizkie haurrei.

Beraz, guraso berrien (ez hain berrien



ere) beldurrak normalak dira, onartu eta ulertzea garrantzitsua da. Berrinaiz nire haurren zainketan, eta nahiz eta beste haurrak hezi izan, nireek emozio piloa sortzen didate: goxotasuna, maitasuna, ilusioa... baina hauekin batera beldurra ere. Nire beldurra entzutea positiboa izan daiteke, heziketan adi egoten laguntzen baitit, eta emozio horren bidez nire haurreri harremanean elkarrekin emozioak erregulatzen ikasteko bidea eraikitzen ikasten dut. Haurren etapa guztietan nik guraso gisa kokatzen joan behar dut, nire emozioak entzuten eta eguneroko elkarrekintzetatik elkarrekin ikasiz.

**Baina zer behar dute guraso berriek? Zer eskain diezaiekegu komunitate bezala?**

Gurasoen ekintzen epaiketa? Ongi

edo gaizki egiten ari diren adieraztea? Noski ez, baina... ez al da hori gehienok egiten duguna? Guraso berriek (guraso guztiok) komunitatearen elkartasuna eta ulerkortasuna behar dute, ez intseguritatea edo mezu ez argiak. Entzuten dugunean ohartuko gara gu ez ginela (ez gaudela) haien zalantzetatik oso urrun eta, konparaketak egin beharrean, goazen entzutera eta haien lekuan ipintzera. Pertsona bakoitza mundu bat gara eta guraso edo haur bakoitza bakarra eta errepika ezina, anitza eta aniztasunean ederra.

Bularra ematearen (edoskitzearen) adibidea jar dezagun: argi utzi nahi nuke gaur egun bularra ematearen onurak handiak direla eta komunitateak erraztasun guztiak ipini beharko lizkiekeela amei zeregin eder honetan

laguntzeko. Baina demagun ama batek (eta uste baino gehiago dira) hainbat arrazoirengatik ezin duela bularra eman. Ez al ditugu ama hauek epaitzen? Eta ezin denean, hamaika saiakera egin arren, ezin al dizkiogu haurrari bere garapenean behar dituen behar afektibo emozionalak berdin eskaini?

Nire ustez, bai, haurrak lehenaldi honetan behar duen modua eskaintzen badiogu. Bularra ematean begirada, ukipen eta kontaktu fisikoarengandik hurbilago gaude, baina biberoi edo txupetearekin modua ere manten dezakegu, mantentzea funtsezkoa da.

(Hurrengo zenbakian jarraituk du)

**Mapi Urresti Ortiz**  
KUTTUN aholkularitza  
psikopedagogikoa



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiljar Jiu Jitsu

Bazkide  
nahiz bazkide  
ez direnentzat  
**MASAJEA**



## Eguneroakoak

Hirubide BHI



Eguneroko maitea:

Atzo, nire lagunekin atera nintzen. Arratsalde osoa egon ginen tontakeriak egiten, dantzatzen... baina ez nengoen gustura, mutil horren gan pentsatzen ari nintzen ordu, minutu eta segundoro. Ez dut bururik altxatzen; baina, egia esan behar badut, ez dut nahi, bera delako nire irribarrearen arrazoia, eta hori ez dut aldatzen.

Nire lagunekin nengoela, animatu nintzen pixka bat, ez nuen arratsalde osoa pentsatzen egon nahi, orduan, dantzatzen hasi nintzen eta nekatuta nengoenez banku batean eseri nintzen ni bakarrik eta, konturatu gabe, bi esku nire begiak estaltzen ari ziren. Bera zen, zoratzen nauen mutila, bere kolonia usaindu nuen, eskuak nire begietatik kendu, eta hitzik gabe geratu nintzen. Bera zen, ikaratuta geratu nintzen, ez nuen ezer ulertzen, baina nahiago dut, batzuetan prestatzen ez dituzun gauzak dira hobeto ateratzen direnak. Nire ondoan eseri zen, ni liluratuta geratu nintzen bere begi urdinen sakontasunean, mundua soberan geneukan, bakarrik ginen bera eta ni. Nire ezpainak bere ezpainetan galdu ziren eta oraindik ez ditut aurkitu.

María López Morales  
Hirubide BHI. DBH 2

ON LINE OSPEAREN GARRANTZIA,  
LANA AURKITZEKO TENOREAN

Enpresek gero eta gehiagotan heltzen diete sare sozialei langileak aurkitu nahi dituztenean. Hainbat saretan profil eguneratua edukitzeaz gain, on line ospea ere bereziki zaindu beharra daukagu.

- Lehenik eta behin, bila ezazu zer plazaratu den sarean zuri buruz. Ikusten duzun horixe ikusiko du kontrata zintzakeen enpresak ere. Begira itzazu lehenago blog eta foroetan egin dituzun komentarioak, iraganean beharbada orain kalte egin diezazukeen zerbait argitaratu zenuen eta. Begiratu pribazitate profila. Lan egin nahi dugun enpresako zuzendariak urtezaharreko festan drag queenez mozorroturik ikus gaitzan ez dugu nahi, ezta?

- Saia zaitetz zeure ezagunek, senideek edo lehenago lan egin duzun pertsonak eta enpresek zure profesionaltasunaz eta maila onaz hitz egin dezaten. Honek nabarmen hobetuko du zure on line ospea, eta bilatzen ari zaren lana lortzeko tenorean lagundu egingo zaitu. Nola egin dezakezun? Bada, zeure blogean post bat idatzi egingdako edo parte hartutako lanei buruz, eta eska diezaiekezu lankideei, nagusiei, eta abarri komentarioren bat egiteko; zure facebook profilean dituzun dohainak aipa ditzatela eska diezaiekezu...

- Halaber, aurrera daramatzazun jardunbideei buruzko txioak idatz ditzakezu, profesionalak ez badira ere, zure balioa areago dezaten. Adibidez, borondatezko lanik egiten baduzu, plazara ezazu eta eskatu zure jarraitzaileei birtxioka dezatela. Horrek guztiak laguntzen du sarean zure presentzia handitzen eta zure on line ospea hobetzen.

- Egindako lanarengatik idatzitako gomendio eta esker onik baldin baduzu, argitara ezazu zeure blogean eta profil profesionalean.

Eta gogora ezazu zuri buruzko informazioa bilatzen duten enpresek hori guztia aurkituko dutela.



CENTRO

KINEESIS

www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT





# Musikak elkartu ditu



Peiok, Oscarek eta Diegok musikarekin lotutako hainbat proiektuan parte hartzen dute

*Luz de Putas* taldearen nortasunaren parte da haizezko instrumentuen atala. Peio Irigoienek tronpeta jotzen du, Diego Martinezek, tronboia, eta Oscar Ruiz de Apodacak, saxofoia. Haurrak zirela ezagutu zuten elkar, gurasoak lagunak baitira. Garai hartan hasi ziren musika klaseetan, instrumentuekin lehenengo doinuak jotzen. Gaur egun, taldekide dira *Luz de Putasen* eta musikarekin lotutako beste hainbat proiektuan.

Txikitan elkarrekin jolasean aritu ondoren, Irungo Bandan hasi zirenean egin zuten topo berriro. Geroago, Oscar Ruiz de Apodacaren bidez sartu ziren hirurak *Luz de Putasen*. "Taldea batek bestera eraman gaitu, eta gehienetan elkarrekin gaude hirurak", azaldu du Diego Martinezek. Irungo Atseginako txaranga, Hondarribiko Elektro Patxaranga, *Big Band Theory* taldean edo *Kemen* Dantza Taldean ere parte hartzen du, besteak beste, hirukoteak. "Jende asko harritu egiten da txaranga batean gutako inor ikusten ez duenean", aipatu du Diegok. Dena uztartzea zaila dela onartu du Oscarrek: "Eromena da. Askotan gertatu izan zaigu ordu

berean bi toki ezberdinetan egon behar izana". Gainezka egoten da musikarien

"Eromena da. Askotan gertatu izan zaigu ordu berean bi toki ezberdinetan egon behar izana"

agenda uda partean. Lo gutxi egin behar izan dute asterik gogorretan.

Ordainsaria izaten dute batzuetan. Baina musutruk jotzen dute askotan. Diego Mar-

tinezek zail ikusten du noizbait musika ogibide bihurtzeko aukera: "Udaran dirua atera dezakegu, baina estra bat besterik ez da". Amari "paga" ez eskatzeko modua dela gehitu du Oscarrek. Gustuko dutelako eskaintzen diote denbora musikari. Baina askotan, kontzertu edo emanaldi bakoitzaren atzean dagoen lana ahazten du ikusleak. "Jendeak parrandan jotzen gustura ikusten gaitu. Baina agian bi edo hiru ordu lehenago joan behar izan dugu montatzera, eta ondoren dena jaso behar izaten dugu", gogoratu du Oscar Ruiz de Apodacak. Itzalean gelditu ohi den lana gogorrena izaten dela uste du musikariak: "Asko kobratzen dugula pentsatzen duenak ez du hori kontuan hartzen".

## Bidaiazteko eta harremanetarako tresna

Gaur egun eskertu egiten dute txikitan hezkuntza musikala jaso izana. Ate asko zabaltzen du instrumentuak jotzeak. "Saxofoia, adibidez, bandan imajinatzen du jende askok. Baina elektro txaranga batean ere erabil daiteke, oso giro ezberdinean", nabarmendu du Diegok. Toki eta jende ugari ezagutzeko modua ere bada musika. Harremanetarako bidea ere ematen duela uste du Oscarrek: "Herri batzuetan behin baino gehiagotan egon gara, eta

## Berbena kalean

Talde askoren artean, Elektro Patxaranga parte hartzen du hirukoteak. Hondarribiko Psilocybenearan sortu zen proiektua, herriko jaietan kalea girotzeko helburuarekin. Hondarribiko mugak aspaldi gainditu dituzte, hala ere. Ohiko txaranga batek izaten dituen instrumentuez gain, elektrikoak ere baditu. Eta abesti ezagunak jotzen dituzte, tabernetan entzun daitezkeenak. "Berbena bat kalera ateratzea da elektro txarangaren ideia", azaldu du Oscar Ruiz de Apodacak. Kalean "zala-parta" sortzen dutela aipatu du irundarrak. Festetako egitarauetan ohiko pieza bilakatu da Elektro Patxaranga.

dagoeneko ezagutzen gaituzte". Euskal Herritik kanpo ere irten dira, musikari esker. Japonian egon ziren *Luz de Putas* taldearekin, eta Holandara, Serbiara eta Poloniara joan dira, besteak beste, *Kemen* Dantza Taldearekin. "Oso momentu onak pasa ditugu", baieztatu du Diego Martinezek. Gustatuz gero, ematen gozatzeko aukera ematen du musikariaren bizitzak.

# GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

[www.gbeventos.es](http://www.gbeventos.es)

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués  
+ DJ *Sizano*

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara  
Zer behar duzu?

[WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM](http://WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM)





## Bekak

- **GAZTEEN EKINTZAILTZA ETA ENPLEGURAKO ESTRATEGIA.** Gazte Bermea Europako ekimen bat da, 25 urteik behe-rako adina izanik ikasten ez eta lanik ere egiten ez duten gazteei lan-munduratzeko errazteko.

Informazio gehiago [info.garantiajuvenil@meys.es](mailto:info.garantiajuvenil@meys.es)

### - ONCE FUNDAZIOAREN BEKAK:

- Mugikortasunaren beka transnazionalak, 20 beka, eta ikasle bakoitzari 6.000 euroko beka.



Master eta graduondokoak burutzeko 20 beka, ikasleko 3.000 eurokoak.

- **Dokortuak burutzeko 2 beka,** 12.000 euro urteko eta ikasleko, bi urtez luzatzeko aukerarekin.

- **2 lkerketa beka,** urteko 25.000 euroko laguntza ikasleko, bi urtez luzatzeko aukerarekin.

- **Ezintasun handia** duten ikasleentzat enpreetan praktikak egiteko 10 beka, hileko 600 euro ikasleko.

- **Epea:** Irailak 20 edo urriak 1, eskatutako bekaren ara-

bera.

- **Informazioa:** 91 506 88 88 telefonoan eta [fundaciononce.es](mailto:fundaciononce.es) e-mailean.

- **Hartzaileak:** Espainiar herritartasuna eta legez onarturiko %33 edo gehiagoko ezintasuna izatea. Aztertu beka bakoitzari dagozkion baldintzak.



## Lehiaketak



### - ARGAZKI LEHIAKETA

AFI "Irun Hiria" 25. edizioa Argazki Lehiaketa antolatzen du.

Argazkiak argazki-paperean, zuri-beltzean edo koloretan, eta edozein teknika erabiliz onartuko dira.

- **Epea:** 2014ko urriaren 17 arte.

- **Hartzaileak:** nahi duen amateur orok parte ahal izango du.

### - BIDE ONETIK KONTAKIZUN LEHIAKETA

Santiagoko Bidea egin behar duzu? Zure esperientzia kontatzeko aukera daukazu irailaren 21a baino lehen, eta sariak irabazi. Informazioa:

[caminodesantiago.consumer.es/concurso-relatos-del-buen-camino/](http://caminodesantiago.consumer.es/concurso-relatos-del-buen-camino/)

### - SORKUNTZA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

- **Epea:** 2014/10/31

- **Hartzaileak:** Irunen gazte-ekimen bat gauzatu nahi duten gazte-taldeak

- **Betekizunak:** Gutxienez 4 kide, eta gehienez, 15 (16-30 urte bitartekoak). Taldeak identifikatuko duen izen bat eduki beharko du

- **Informazioa:** IGazte bulegoan.



### - #AUZOSPOT, AUZOLANDEGIEN SPOT LEHIAKETA

- **Helburua:** 2015eko Auzolandegiak programa iragartzeko spota egitea.

- **Gaia:** Auzolandegiak programaren helbururen bat azaldu behar da: gazteen arteko elkarbizitza, borondatezko laguntza, laguntza komunitateari, elkartzasuna, lankidetzara...

- **Epea:** uztailaren 2tik urriaren 31ra.

- **Informazioa gehiago:** [gazteaukera@gmail.com](mailto:gazteaukera@gmail.com).

- **Hartzaileak:** 18 urte eta 30 urte artean izatea, eta lanak originalak izan behar dira.



## Hondarribiko jai kontzertuak

- **Iralaren 5ean, ostirala,** 23:00etan, "Anai Arrebak" eta "Kashbad". Bentan.

- **6an, larunbata,** 23:00etan, "The Vintage Caravan" eta diskofesta. Bentan.

- **8an, astelehena,** 23:30ean, "Esne Beltza". Bentan.

- **9an, asteartea,** 22:00etan, "Tripimons-ter" eta "Kaotiko". Ben-

tan.

- **10ean, asteazkena,** 22:30ean, Anne Etchegoyen eta Aizkoa Abesbatza. Arma plazan. Eta Bentan ordu berean, Beñat Igerabide eta "EH Sukarra".

- **11an, osteguna,** 21:00etan, "Hostoak" ikuskizuna. Bentan. "Alabak", "Kukai Dantza Taldea" eta "Oreka TX" taldeekin.



## Gazte Informazioko ordutegi berria



Irailan IGaztek honako ordutegia izango du: astelehenean ostiralera 10:00etatik 14:00etara



zure enpresari internetetik zabaltzen laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza





**Irailaren 6an****"Errromatarren garaiko egurrezko piezak" hitzaldia (Pia Alkain)**

Ordua: 12:00etan

Lekua: Irungo Gordailuan

Doako sarrera

**Irailaren 7an****"Ciudad de Irun" Musika taldearen emanaldia**

Ordua: 19:45ean

Lekua: Junkal plazatxoan

Doako sarrera

**Irailaren 12tik 14ra****Kalamuaren Nazioarteko III Azoka Ficoban**

Prezioa: Egun bateko bonua: 12 euro / Bi eguneko bonua:

20 euro / 3 eguneko bonua: 25 euro.

Kontzertuak: Macka B &amp; the Roots Ragga Band (uk), Naâman (fr), Lariba (ch), Alamedadosoulna (es), Perro (es), Little Pepe, Gordo Master, etab.

Informazio gehiago 943667788 telefonoan eta [www.expogrow.net](http://www.expogrow.net) webgunean.**Irailaren 20an**

Mintegia: "Aurkitutako aizkora leundua Arano mendian (Orio): Gipuzkoako brontze aroaren kultura materiala"

Ordua: 10:00etan.

Lekua: Irungo Gordailuan.

Doako sarrera

**IRUNGO III. GAUEKO LASTERKETA**Non? San Juan Harria plaza.Noiz? Irailaren 20an, arratsaldeko 20:30tan.Izen-ematea: txip horiarekin 13 euro / Txip alokatuarekin, 15 euro.Oharrak: Gaueko lasterketaren III. edizio honek, Bidasaldeko Kiroletako Klubek eta Gonzalez Kiroalak antolatuta, 6,5 km-ko ibilbidea izango du.

Antolamenduak etekinak zuzenduko ditu GKE batera eta Atletismo Txingudi-ra, azken talde hau ere ekitaldiaren kolaboratzailea izanez.

Informazio gehiagorako, [carreranocturnairun@gmail.com](mailto:carreranocturnairun@gmail.com) e-mailaren bitartez, edo 943 613 985 telefonora deituta.**Adour Bidasoa Pintura Lehiaketa****Zer:** "Adour-Bidasoa" XXIII. Pintura Lehiaketa**Noiz:** Lanak irailaren 2tik 7ra bitartean, biak barne, aurkeztu ahal izango dira Amaia Kultur Zentroan. Sari-banaketa irailaren 19an izango da hautatuko diren obra guztiekin egingo den erakusketaren inaugurazioan. Obrak urriaren 12ra arte bertan instalatuko dira.**Sariak:** 2.500 euroko lehen sari bat emango dute, gaztearen lanik onenari (30 urte baino gazteagoa) 500 eta Epaimahaiaren Sari Berezi bat izango da, 500 euroko zuzkidurarekin.**Garagardo azoka**  
Estebenea jatetxean  
Irailaren 18tik 21era

- Brew Dog experience
- Bidasoko garagardo berriaren aukezpena
- Kontzertua
- Afaria Erik Coeneren azalpenekin
- Artisan-garagardo ikastaroa



Olaberria auzoa, 51 - IRUN - 943 62 19 62



**HERRI  
JAKINTZA**  
euskaltegia

**IKASI  
EUSKARA**

**BESTELA EZ  
GARA!**

**Maila guztiak**

**Hizkuntz eskakizunak**

**HABE titulu ofizialak**

**EGA | IVAP | IRALE**

**Guraso taldeak**

**Matrikula  
zabalik**  
**2014|15**

**Matrikula:**

**Irailaren 9tik - 26ra**

**11:00etatik - 13:00etara**

**17:00etatik - 19:00etara**

**Irulon,  
zuk  
euskaraz!**

**Nafarroa hiribidea, 13 | IRUN (20302)**

**Telefonoz ere matrikulatu | 943-635-266**

**herrijakintza@gmail.com**



**HERRI  
JAKINTZA**  
euskaltegia

**HADE**

